

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Barcina Lehendakariak gutxiagorekin gehiago egin behar dela jakinarazi die Gobernuko goi-kargudunei

Guztien koordinazioa eskatu du herritarren ongizatea hobetu eta langabeziari aurre egiteko

Lunes, 29 de agosto de 2011

Yolanda Barcina Nafarroako Lehendakariak gutxiagorekin gehiago egin behar dela jakinarazi die Gobernu berriko goi-kargudunei eta konfiantzako postuei. "Egoera aldatu egin da" eta "eredua izan behar dugu", esan du. Hortaz, "diru eskasia ezin dugu aitzakiatzat erabili" egin beharrekoa ez egiteko.



Barcina Nafarroako Gobernuko goi-kargudun guztien aurrean mintzatu da

Barcinak hala hitz egin die, gaur eguerdian, Nafarroako Artxibo Nagusiko ekitaldi aretoan, Gobernu berriko kontseilari, zuzendari nagusi, zuzendari kudeatzaile eta gabineteko buruei. Modu koordinatuan jarduteko ere eskatu die "gure herrialdeko krisi ekonomikorik larrienari" aurre egiteko.

"Departamentu estankoak alde batera utzi behar ditugu. Politika egiteko modu zaharra da hori", esan du. "Gobernu bakarra dugu, eta argi izan behar dugu zein den gure helburua eta zein gure etsaia". "Helburua Nafarroako herritarren ongizatea da, eta etsaia langabezia".

Horren haritik, mintzaldia entzutera joan direnei une honetatik hasita batera lan egiteko eskatu die. "Amaitu da lurreratzeko fasea. Gobernuaren makineriak abiadura bizkorrena hartu eta etekina eman behar du, eta une honetatik aurrera hala jarduteko eskatzen dut".

Krisialdiaren amaiera

Bestalde, Lehendakariak krisi ekonomikoa izan du hizpide. Zentzu horretan, esan du "krisia aitortzen lehenak izan baginen, krisialdia amaitzen ere lehenak izan behar dugu". Beraz, Gobernu berriko goi-kargudunei ildo ekonomiko batzuk eman



Nafarroako Gobernuko goi-kargudunak Barcinaren mintzaldia entzuten

dizkie politika publikoak gauzatu eta aurrekontuak prestatzeko.

"Estatu mailan ezarri dizkiguten defizit mailak bete behar ditugu", esan du hasteko. Hori hala izanik, gogorarazi du 2012rako ezarritako BPGren % 1,3 eta Nafarroako Gobernuak 2013rako zehaztutako helburua bete beharko dituela, hau da, "sarrerak eta gastuak doitu, hots, zor publikorik ez eskatu".

Barcinak helburu hori "asmo handikoa" dela esan du, eta lortzeko "ahalegin handia egin behar dela", bai aurrekontuak prestatzeko zein gastu publikoak gauzatzeko orduan. "Gure baliabideak modu egokian banatu behar ditugu, eraginkortasun handienarekin. Ziur nago ideiarik onenak sortuko direla". Horren haritik, zera esan du: "Gobernuak zorrotz jokatu du zintzotasun ezaren susmorik egonez gero".